

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko azaroaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Bakarne Oliden Albeniz (EH Bildu), Andoni Torres Fernandez (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ) zinegotziek telematikoki parte hartu dute bilkuran.

Gai-zerrenda

- 1.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk arautzen dituen udal-ordenantzari.
- 2.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Arrantza kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektuari buruz.
- 3.- 2021eko udal-aurrekontuaren hirugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 4.- 2021eko hirugarren hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 11/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 12/2021 zenbakidun kreditu aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 7.- Onartzea, egoki bada, 1/2021 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 8.- Onartzea, egoki bada, 2/2021 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 9.- Berrestea, egoki bada, 2021eko azaroaren 5eko 540 zenbakidun alkate-dekretua.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2022ko aurrekontu orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2022. urterako plantilla organikoa.
- 12.- Onartzea, egoki bada, EH BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioa, interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa.
- 13.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, PERTSONEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOAREN ETA BIDE URBANOEN ERABILERAREN ALDERDI BATZUK ARAUTZEN DITUEN UDAL-ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza batzordeak 2021eko azaroaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk arautzen dituen udal-ordenantzari.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate lehen alkateordeak hartzen du hitza eta adierazten du ordenantza hori trafikoaren eta zirkulazioaren arloan udalei legez emandako eskumenen baitan onartu dela. Ordenantzaren helburua da Orioko pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioaren eta bide urbanoen erabileraren alderdi batzuk arautzea, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren arintasuna hobetzeko eta aparkalekuen errotazioa eta erabilera egokia bermatzeko.

2.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ARRANTZALE KALEKO BIDEGORRIA HONDARTZAKO BIDEGORRIAREKIN LOTZEKO PROIEKTUARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza batzordeak 2021eko azaroaren 12an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA Ramon Elizalde Eizagirrek aurkeztutako alegazioa, Hirigintza batzordeak 2021eko azaroaren 12an egindako bilkuran diktaminatutako terminoetan.

2.- BEHIN BETIKO ONARTZEA Arrantzale kalea Orioko hondartzako bidegorriarekin lotzeko bidegorria eraikitzeko proiektuak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda.

3.- Ukitutako ondasun eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla **ADIERAZTEA** eta desjabetze-espedientea hasitzat jotzea.

4.- Okupazioaren aurreko akten **DEIALDIA EGITEA**.

5.- Balorazioa zehazteko banakako espedientea **APLIKATZEA**.

6.- Erabaki hau **ARGITARATZEA** Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 21. artikuluan xedatutakoa betez.

3.- 2021EKO UDAL-AURREKONTUAREN HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- 2021EKO HIRUGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 11/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 11/2021 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 113.222 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 11/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 113.222 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 12/2021 ZENBAKIDUN KREDITU ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 12/2021 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 120.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 12/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 120.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 1/2021 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 1/2021 zenbakidun konpromiso-kredituak 59.895 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 1/2021 zenbakidun konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituak 59.895 euroko zenbatekoa du

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era). Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituaren espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2/2021 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 2/2021 zenbakidun konpromiso-kredituak 197.837 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2/2021 zenbakidun konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituak 197.837 euroko zenbatekoa du

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era). Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituaren espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

9.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2021EKO AZAROAREN 5EKO 540 ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2021eko azaroaren 5eko 540 zenbakidun alkate-dekretu horren bidez, Jon Amenabar Segurola udal-enplegatu publikoaren ordainsari-maila aldatzea erabaki da, E-5 mailatik E-8 ordainsari-mailara igota, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta horrek Udaleko plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan aldaketa egitea ekarri du. Hori guztia, udalbatzarrak berretsi dezan, egoki bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Pertsonala batzordeak 2021eko azaroaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA 2021eko azaroaren 5eko 540 zenbakidun alkate-dekretua. Alkate-dekretu horren bidez, Jon Amenabar Segurola udal-enplegatu publikoaren ordainsari-maila aldatzea erabaki da, E-5 mailatik E-8 ordainsari-mailara igota, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta horrek Udaleko plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan aldaketa egitea ekarri du.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2022KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2022ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2021eko azaroaren 18an eta 25ean emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrereren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.417.006
2	Zeharkako zergak	190.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.675.424
4	Transferentzia arruntak	4.960.289
5	Ondarezko diru-sarrerak	190.030
6	Inbertsio errealeen besterentzea	20.000
GUZTIRA		8.452.749

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.514.640
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	2.928.254
3	Finantzaketa-gastuak	28.000
4	Transferentzia arruntak	1.381.908
5	Kreditu globala	121.884
6	Inbertsio errealak	461.193
7	Kapital-transferentziak	16.870
GUZTIRA		8.452.749

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2022. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2022ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea arau hauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeke arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aurrekontu orokorra behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH-BILDUren izenean eta Ogasuna eta Pertsonala batzordearen buru den aldetik, eta adierazten du pozik dagoela udal-aurrekontua hirugarren aldiz jarraian aho batez onartu delako. Adierazten du gaur egun beste modu batera lantzen dela aurrekontuaren gaia Udalean, gardentasun osoz, eta oso pozgarria dela aurrekontua garaiz onartu izana, datorren urtearen hasieratik bertatik aplikatzen hasi ahal izateko.

Jarraian, alkateak aurrekontuaren barruko gastuen kapitulu bakoitzaren berezitasunak aipatzen ditu:

1. kapituluaren nabarmendu behar da urtetik urtera indartu egiten dela, inbertsioei buruzko 6. kapituluaren bezala. Nabarmentzekoak dira, batez ere: modernizazio-teknikariak dakarren errefortzua; Udaltzaingoko kideen funtzionamenduaren

hobekuntza, TAO zerbitzua kanporatu denez gero; Obra eta Zerbitzuen brigadari atxikitako bitarteko funtzionarioen izendapena; eta kultura eta festetako teknikari berria eta Gazteria eta Kiroletako teknikari berria.

2. kapituluan, TAO zerbitzua kanpora ateratzea eta Berdintasun Planaren bigarren fasearen exekuzioa nabarmendu behar dira, eta baita “NEGU-ETXEA” izeneko udal-bulegoaren egokitzapena ere.

4. kapituluan, hauek dira nabarmentzekoak: gizarte-larrialdietarako laguntzei eta laguntza psikosozialei dagozkien gizarte-zerbitzuen arloko aurrekontu-sailetako gehikuntza; Mutiozabal eraikinaren eta Etxeluzeren zati baten kudeaketa ALBAOLA erakundearen eskutan uztea, Orioko itsasadarreko itsas ondarea dinamizatzeko; eta Ahalduntze Eskolari esleitutako funtzioak.

6. kapituluan, azkenik, alkateak inbertsio-partida hauek nabarmentzen ditu:

- Herriko ikastetxeen jarduerak indartzea
- San Martin ingurua urbanizatzeko obrak egitea; besteak beste, lurpeko kanalizazioak.
- Antxiola kaleko irisgarritasuna hobetzeko obren exekuzioa.
- Ortzaika auzoko argiteria publikoa hobetzeko eta postontziak aldatzeko obren exekuzioa.
- Anibarko Portuko hobekuntza-lanen exekuzioa
- Zaragueta Ikastetxeko eta Haurreskolako hobekuntza-lanen exekuzioa
- Udal-instalazioetan zenbait kirol-proiektu exekutatzea.

Horrenbestez, eta azaldutakoaren argitan, alkateak adierazten du oso gustura dagoela eta eskerrak eman nahi dizkiela Udalaren 2022ko aurrekontu orokorra onartzeko aldeko botoa eman duten udalbatzarkide guztiei.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorraren erredakzioak Udala osatzen duten talde politikoek egindako ekarpenak jasotzen dituela eta, beraz, bere poza adierazi besterik ezin duela egin. Adierazten du EAJk egin dituen ekarpenak jasota daudela aurrekontuan; besteak beste, hauek:

- Antxiola kaleko irisgarritasuna hobetzeko obren exekuzioa.
- Udalaren kirol-instalazio berriak egokitzeko azterlana idaztea.
- Orioko itsasadarreko itsas ondarea dinamizatzeko azterlana idaztea.

- Gizarte-zerbitzuen arloko partidak gehitzea, nahiz eta inoiz ez den nahikoa.

Azkenik, Lourdes Salsamendi zinegotziak adierazten du ilusio handia sortzen diola Udalaren 2022ko aurrekontu orokorrak; eta adibide gisa aipatzen du udal-kanpinean igerilekuak handitzeko proiektua. Beraz, alkateari eskerrak eman besterik ez zaio geratzen, EAJ talde politikoak egindako ekarpenak ontzat emateagatik.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOEren izenean, eta zorionak ematen dizkio alkateari, Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorra prestatzen egindako gestioagatik, eta eskerrak ematen dizkio PSE-EE-PSOE talde politikoak aurkeztutako zuzenketak onartzeagatik:

- Gizarte-zerbitzuaren alorreko partidak sortzea: gizarte-larrialdietarako laguntzak, familia eta lana uztartzeko laguntzak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, NEGU-ETXEA eta AHALDUNTZE ESKOLA (berdintasunerako jarduerak).
- Pertsonal arloko aurrekontu-partidak sortu eta indartu dira, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko, batez ere kontuan hartuta Orioko herrian biztanle-kopurua handitzen ari dela eta, ondorioz, zerbitzu publikoen beharra areagotu egiten dela.
- Inbertsioen arloko aurrekontu-partidak sortu dira. Irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak azpimarratu behar dira; esaterako, Orioko Antilla hondartzan, hondarretara sartzeko bidea hobetzea, eta Azurza eta Musika Eskolako udal-eraikinetan, eta ibai-ondo pasealekuko zebra-bideak hobetzeko aurreikusitako inbertsioak.

Horrenbestez, eskerrak ematen dizkie Ogasun batzordeko kide guztiei, egindako lanagatik eta Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorra prestatu eta onartzeko elkarlanagatik.

Jose Angel Iparraguirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta goraipatu egiten du 2022ko Aurrekontu Orokorra prestatu eta onartzeko Ogasun batzordeko kide guztiek egindako lan neketsua. Beraz, zorionak ematen dizkio alkateari talde guztien zuzenketak jaso eta onartzeagatik. Horri esker, aurrekontu-proiektu indartsu eta anbiziotsua daukagu. Nabarmentzekoa da partida asko utzi direla irekita 6 euroko zenbatekoarekin, gero landu eta aurrera ateratzeko. Nabarmentzen du, baita ere, Ogasun batzordearen bilera egingo dela hilabete barru, inbertsioetako partidatan aurreikusitako gastuetan lehentasunak ezartzeko.

Bukatzeko, Jose Angel Iparraguirre zinegotziak adierazten du ORAIN talde politikoa erabat gustura dagoela Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorrarekin, eta bere talde politikoak aldarrikatzen jarraituko duela Udalak kontu-hartzaile baten beharra daukala eta padel-pistak estaltzeko obrak egin behar direla.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2022. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2021eko azaroaren 18an eta 25ean emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoa, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoa onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA plantilla organiko hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udal-enplegatu publikoak Orioko Udalak zaindu beharreko altxorra direla, eta, gai horrek garrantzi handia duenez, erabaki duela Ogasuna eta Pertsonala batzordea bi azpibatzerdeetan

banatzea: Ogasun batzordean aurrekontu eta finantza gaiak buruzko gaiak landuko dira; eta Pertsonal batzordean, berriz, langileei dagozkienak.

Adierazten du, baita ere, Orioko Udaleko lanpostuen balorazioa egin beharra dagoela, epe ertainera dagozkion aldaketak egin ahal izateko, eta horrek isla zehatza izan behar duela Orioko Udaleko 2022ko lanpostuen zerrendan. Hori dela eta, Udalaren 2022ko Aurrekontu Propioan, 6. kapitulu (kreditu orokorra), langileak kontratatze behar diren diru-partidak sortu dira, lanpostu hutsak betetzeko.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU UDAL-TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EH BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetarik baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zaborteak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren parte-hartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremu administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOn baliogabetu egingo du. Are gehiago, Lurralde Antolamenduen Legearen aldaketa honek toki-erakundeen prebentzio-kontrolerako ahala ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremu autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Orioko Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Orioko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.

2. Orioko Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.

3. Orioko Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrerara eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egiten da, emaitza honekin: Aldeko botoak: Anuska Esnal Oriden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oriden Albeniz (EH BILDU) eta Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), guztira **SEI ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieto (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **SEI KONTRAKO BOTO**. Abstentzioa: Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Berdinketa dagoenez (6 aldeko boto eta 6 kontrako boto), indarrean dagoen legedia aplikatuz, bigarren bozketa bat egiten da, eta emaitza hau da:

Aldeko botoak: Anuska Esnal Oriden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oriden Albeniz (EH BILDU) eta Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), guztira **SEI ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieto (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz.

Udalbatzarrak, beraz, egindako bigarren bozketaren emaitza ikusita, **HAU ERABAKITZEN DU**:

EZ ONARTZEA EH BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioa, interes publiko gorenko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, bere talde politikoak emandako kontrako botoa justifikatzeko, eta idatzi hau irakurtzen du hitzez hitz:

Azken hamarkada, oro har, ingurumena arrisku larrian jartzen duen garapenaren ondorioak agerian uzten ari da, eta, zibilizazio gisa, aurrekaririk gabeko erronka bat planteatzen digu, berehala erantzun behar dioguna. Mehatxu global horrek, erakunde gisa, berotze globala ahal den neurrian arintzeko ekintzekin konprometitzeko eskatzen digu zuzenean.

Parisko goi-bilerak mugarri batzuk ezarri zituen, eta Glasgown egin berri den munduko goi-bileran indartu diren konpromiso batzuetara zuzendu gintuen.

Konpromiso horiek 2030. urtea dute ardatz, gainditu beharreko lehen erronka nagusia baita. Horregatik, azkar jokatu behar dugu, interes orokorra partikularren gainetik jartzen duten tresnak erabiliz.

Askotan berritzaileak ez diren tresnak erabili behar ditugu, adibidez Uraren Europako Esparru Zuzentaraua, non jerarki argi batek ezartzen duen interes orokorreko jarduketa estrategiko europarrak nagusitzeko, beharrezko ikuspegi globalik ez duten estatu- edo eskualde-politiken gainetik.

Tresna horiek, badituzte dagoeneko autonomi-erkidego gehienek, Nafarroa barne, eta Estatuko Gobernuak naturaltasun osoz aplikatzen ditu, hainbat eremutan, "Interes orokorreko proiektuen" babespean.

Oso konsziente gea gizarte osoak ingurumen-arloan dituen erronka handiak, bai globalki, bai tokian-toki: klima-aldaketa, kutsadura, biodibertsitatearen galera, baliabideen xahutzea saihesteko hondakinen kudeaketan eta "itsasoen plastifikazioa", besteak beste.

Gure eredu energetikoa deskarbonizatzearen aldeko ekintza eraginkor eta zehatzei modu erabakigarrian aurre egiteko beharra berresten dugu, fokua arintzean eta lotutako prozesuen eraginkortasun energetikoan jardunez. Era berean, gure hondakinen kudeaketa arduratsuak Ekonomia Zirkularrean eta Erosketa Publiko Berdean modu erabakigarrian aurrera egingo duten neurriak ezartzera eramango gaitu, kutsadurari bere adierazpen guztietan aurre egiteko eta, horrela, pertsonen osasuna eta gure biodibertsitatearen galera babesteko.

Helburu horien interes publiko orokorra onartzen dugu; jakinda interes hori, berez, herritarrak partekatu eta bultzatu beharko luketela.

Gure ustez Eusko Legebiltzarrean, lantzen ari den Ingurumen Administrazioaren lege proiektuaren barruan onartu den ponentzian Interes Goreneko Proiektu Publikoen figurak hain zuzen ere, erronka hauei gizarte gisa duten erantzukizunetik, erantzuteko aukera eman nahi du, ingurumen-balioak defendatzearen alde eginez eta hondakinen kudeaketa jasagarrian, ekonomia

zirkularra sustatzeko eta energia garbien ekoizpenean beharrezkoak diren instalazioak ahalbidetuz, klima-aldaketari aurre egin ahal izateko.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta adierazten du kontrako botoa eman duela, bere talde politikoak ez duelako behar adina denbora izan aipatutako mozioa arretaz aztertzeke, eta, batez ere, 2013ko apirilaren 30ean egindako udalbatzarrean esandakoarekin bat etorritz; alegia, aipatutako mozioa ez delako aldeztu aurretik aztertu dagokion udal-batzordean.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du gaur indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko eguna dela adierazteko, eta, hori dela eta, nabarmendu nahi duela Orioko bi herritarrek 2019an egindako indarkeria matxistaren aurkako plana; plan horretan garbi geratzen da Orioko herri matxista da, eta, beraz, behar-beharrezkoa dela politika feministak egitea, AHALDUNTZE ESKOLAK lideratuta.

Horrenbestez, aprobetxatzen du udalbatzarrak ematen dion aukera hau, Orioko emakume guztiei musu eta besarkada bana emateko.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,